



Xabier Amuriza, Josu Naberan, Julen Kalzada eta Alberto Gabikagogeaskoa, Nikola Telleria zena falta da.

GOSE GREBA GOTZAINDEGIAN, 40 URTE

«Abadetza tresna bat zen guretzat, inpunitatea»

1969ko maiatzaren 30ean, bost abadek itxialdia eta gose greba egin zuten Bilboko Gotzaindegian. Latz ordaindu zuten frankismoko Elizari aurre egitea, eta Zamorako kartzela berezian sartu zituzten. Baina, “presoaren lehen eginbearra ihes egitea da”...

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Judit Fernandez

SUSPENSE ETENGABEA zen Euskal Herria 60ko hamarkadan, nondik lehertuko ote zen asmatzerik ez zegoen lapikoa. 1969ko Gotzaindegiko gose greba eta Zamorako kartzelako ihes saiakera ez ziren bi okurrentzia izan, bi gertaera isolatu. Gizartean eta seminarioen barrunbeetan borborka zegoen giroaren ondorio ziren. ETaren lehen ekintza armatuak, lehen hilketak, sarekadak eta torturak, salbuespen egoerak...

Inoiz ezagutu duten “hamarkadarik esplosiboena” bizitzea tokatu zitzaizen lau hizlariei; sotana jantzita.

Orain, 40 urte beranduago, gertakizun konkretu haiek kontatzea erabaki dute protagonistek: Julen Kalzadak (Busturia, 1935), Alberto Gabikagogeaskoak (Lekeitio, 1936), Xabier Amurizak (Etxano, 1941) eta Josu Naberanek (Gautegiz Arteaga, 1941). Bizipen horiek bilduko dituen liburuari forma ematen

ari dira Josu Naberan bera, Angel Zelaieta eta Juan Mari Arregi.

Larrabetzun zita

Larrabetzun bildu dira abade-ohiak, aurretik elizara sartu ditugu argazkitarra, nahiz eta, dioten, egungo Elizaren gorabeherak ez dituzten gehiegi jarraitzen. Josu Naberanek ez ditu ahaztu Larrabetzuko eliza horretan gertatuak, nola 68an poliziak eragotzi nahi izan zuen hil berri zuten Etxebarrieta-

ren aldeko meza: “Guardia Zibila etorri zen eta hartu zuen kalea; jendea kalean eta ni eliz atarian. Kanpaia jotzeko ordua iritsi zenean, hasi nintzen jotzen eta jendeak aurrera egin zuen. Hor denek jaso zuten egurra, ezkertiarrek eta eskumatarrek” dio. Baina, Naberanek ez zuen etsi: “Oraingoan ez bada hurrengoan” esan zien *benemeritako*-ei. Horrela eduki zituen “xakean”, nola euskal apaizek frankismoko aparatua eduki zuten jokoan kanpo.

Bazegoen euskal Elizaren barruan holako errebeldia bat. Zer giro arnasten zen seminarioetan? Nondik ateratu zen jarrera hori?

Josu Naberan: Sasoi hartan salbuespen egoera zegoen Gipuzkoan eta Estatu osora zabaldu zen, gose greban hasi baino hiru hil lehenago. Kanpoan mobida handiak zeuden, sektore guztietakoak eta abadeak ere hor sartu ginen.

Xabier Amuriza: Seminarioa ez zegoen giro horretatik aparte. Hala-ko esplosiorik hain denbora gutxian? Hiruzpalau urtean seminarioak hankaz gora joan ziren. Errebeldetako kontzientzia izan ote zen... Abade egin nintzen pentsatuz sotanarekin hilko nintzela, eta hurrengo urtean sotana barik nenbilen.

Julen Kalzada: Nik hainbat urte egin nituen Gasteizen eta han horre-



lako konturik ez zen. Baina azkene-ko bi urtetan Deriora etorri eta giroa guztiz ezberdina zen: Herri Gaztedi, ETA... Gero etorri zen Vatikanoko kontzilioa eta gogoratzen naiz obispoa etorri zela asaldatuta: “*He visto un obispo negro, muy negro!*” esanez.

Bilboko Gotzaindegian gose greba

Gogor taldeko abadeak lehenago ere bazituzten bi itxialdi labur eginak leku horretan, bidea bazekiten beraz. 69ko apirilean Kantabriako Mogrovejon ETAREN kontrako sarekada gertatu zen eta Mikel Etxebarriaren ihesaldia sonatua izan zen. Testu-inguru horretan sartu ziren abadeak Gotzaindegira eta honela dio Amurizaren orduko bertso batek:

*Maiatzeko egun batez
hogeita hamar hain suertez
gose greba bat hasi genduan
geure borondatez.
Goitik laguntzarik bapez
guztia zen geure kaltez
obispo ta apaiz golko-handiak
lasai bizji bitez.*

Zergatik, zehazki, gose greba hura?

J. Naberan: Aspaldian genbiltzan zerbait gogorragoa egin behar zela pentsatzen eta tortura salaketek probokatu zuten hori. ETAKO egitura jausi zenean torturak azaleratu ziren lehen aldiz modu ebidentean; horien kontra planteatu genuen gose greba eta itxialdia.

X. Amuriza: Pentsatu behar da frankismoa oso katolikoa zela eta

1960-1970: asaldaketa politiko-sozial handiko hamarkada

1969ko maiatzaren 30etik aurrera, bost euskal apaizek Bilboko Gotzaindegian burututako gose grebak, hamar eta hamabi urteko kartzela zigorrak ekarri zituzten; baina ez zen gertaera bakana izan gure herriaren historian. Francoren erregimenak, Eliza ofizialaren hierarkiaren laguntzaz, urtetan burututako errepresio politiko eta sozialaren aurkako erretzea izan zen. Gurutzada frankista abiatu zenetik, euskal kleroaren hainbat sektorek herriaren alboan egoteko erabakia hartu zuten eta, horregatik, zenbait apaiz fusilatu egin zituzten. Apezpiku batek, Mateo Mugica Monsinoreak, hasieran altxamendu frankistaren alde egin arren, iritzia aldatu eta bere kleroa babestea erabaki zuen; ondorioz, errepresaliak jaso zituen, deserritu egin zuten eta Zarautzen hil zen, baztertuta.

ETA 1960an sortu zen. Klandestinitatean zabaldu ahal izateko, kanpoko laguntza behar izan zuen, eta laguntza hura,

besteak beste, zenbait parroki etxetan eta erlijiosoen komentutan topatu zuten. Batzuetan, etxe horiek ETAKO liberatuen babesleku izan ziren. ETAREN propaganda aparatua ere hainbat apaiz eta erlijiosoz baliatu zen. Urte horretan bertan, Euskal Herriko 339 apaizek manifestu bat helarazi zioten Vatikanuari giza eskubideak, banakoenak nahiz kolektiboak, eta hizkuntza eskubideak urratzen ari zirela eta askatasun politikorik ez zela salatzen. Manifestua sinatu zuten askok zegozkien apezpikuen errepresaliak jaso zituzten: jatorrizko parrokietatik urruneko herrietara lekualdatu –deserritu– zituzten.

1967an, Bizkaiko 80 apaizek Gobernu Zibilaren aurrean manifestazioa egin genuen sotanak jantzita, Bandas-eko (Bizkaiko Labe Garaiei hala esaten zitzaiekan orduan) grebalariei elkartasuna agertzeko. Urte haietan, zenbait apaiz fabrikatan eta eraikuntzan lanean hasi ziren. Egune- egunera lan eta gizarte gatazkak areago-

zuten ari ziren. Orduan legez kanpokoak ziren maiatzaren lehenak eta Aberri Egunak gogor zapaltzen zituzten, eta pertsona asko atxilotzen zituzten, horietako batzuk apaizak, hala nola Ierro hauek sinatzen dituenak. ETAKO atentatu batek lehen hildakoa eragin zuen eta, halaber, lehen aldiz guardia zibilak ETAKO liberatu bat hil zuen, Txabi Etxebarrieta. Horrek guztiak Euskal Herria astindu zuen. Eliza ofizialak ezentzu-narena egiten zuen, erregimen frankistarekin zeukan konplizitateari eutsiz. 1968an, Bizkaiko apaiz batzuek Bizkaiko Gotzaindegia bitan okupatu genuen, maiatzean eta ekainean, Elizaren konplizitatea salatzen. 1968ko azaroan 80 apaiz inguruk Derioko Seminarioa hogeitaz egunez okupatu genuen, Vatikanuari Eliza propioa, autoktonoa, pobrea, askea eta profetikoa –zapalketa politikoa eta soziala salatuko zuena– eskatzeko.

1969an, errepresioa basatia izan zen. Apirilean ETAREN kupulako hainbat kide



horrelako ekintzek eztanda soziala eragiten zutela, kleroak berak ere horrela aurre egiteko...

Paper bat ere atera zenuten. Zergatik haserretu zen horrenbeste Eliza idatzi horrekin eta grebarekin?

Alberto Gabikagogeaskoa: Baze-kiten poliziak etorri behar zuela eta herri guztia guri begira zegoela. Baina nahita nahiez baimena eman behar zieten sartzeko, zuten posturagatik. Cirarda obispoa guregana etorri zenean hau esan zigun: "Zergatik ez zarie joan Hotel Carltonera?"

Zerk motibatu zuen ekintza hura? Arrazoi erlijiosoak izan ziren, moralak, edo politikoak?

J. Naberan: Cirardari eskatzen genion torturak salatzeke, baina nobedadea izan zen errebindikazioak zuzenean Estatuari eskatuz egin genituela eta ez Elizari.

X. Amuriza: Atera genuen agiria ikustea besterik ez dago. Salaketa politikoa zen, *Bandidaje y terrorismo* legea guk deklaratzeko genion Estatuari. Eskubideak eskatzen genituen, baina ez genuen esperantzarik Elizak ezer salatuko zuenik, eta horregatik zen agiria hain politikoa.

Itxialdian bazen beste pertsona bat, Nikola Telleria, kartzelatik irten eta segituan hil zena. Zein zen Nikola zuentzat?

A. Gabika: Guk baino hogeita urte gehiago zituen...

X. Amuriza: Gerra eta gero frankismoko iluntasunean geratu zen, isolatua. Derrepente etorri zen mugimendu berri hau eta "joño!" esan zuen; buruz bera sartu zen hor.

J. Kalzada: Gogoratzen duzu ze ahalegin egin genituen bera grebara ez joateko?

X. Amuriza: Bai, ikusten genuen urte batzuk bazituela... Baina hari ez zegoen hura burutik kentzerik.

Esan liteke gerra zibiletik pausu gutxira zegoela egoera; aurreko gerran euskal apaizak hil zituzten. Ez al zenuten beldurrik?

A. Gabika: Nik abisu bat jaso nuen eskumako jendearengandik, baina batez ere torturen beldur nintzen.

J. Kalzada: Ni ez. Esperientzia bat baneukan lehenagotik, Dorronso-rorekin batera detenitu nindutenekoa, eta estura pasatu nuen arren, orduan ez ninduten ukitu.

X. Amuriza: Poliziak ez zeukan guri ezer ateratzerik. Nire beldurra zen pentsatzea "hauk badute informazioa" eta torturatzea hori ateratzeko.

A. Gabika: Baina euren kontua izan zen. Gure atxiloteta oso zabaldua zegoen, pentsa, *Radio Parisen* ere esan zuten. Orduan, guk bes-teen torturak salatzen eta deskuiduan guri ezer eginez gero... ez zitzairen komeni. Eta zer egin zuten? Bi urteko kondena sartu beharrean hamabikoa sartu, huraxe izan zen gure tortura.

J. Naberan: ETako kupula erori zenean uste zuten horrekin amaitu zutela, eta abade batzuk berriz ere endredatzen hastea Estatuarentzat



Goian: Zamorako kartzela gaur egun. Eskuinean: Josu Naberan, Alberto Gabikagogeaskoa eta Jon Etxabe Cartagenako presondegian 1972an, Zamorako ihes saiakeragatik zigortuta.



atxilotu zituzten, baina beste hainbatek ihes egitea lortu zuten eta, horretarako, herritarren laguntza izan zuten, baita zenbait apaiz eta erlijiosorena ere. Apaiz eta erlijioso horietako batzuk atxilotu zituzten, baina beste ehunka batzuek ihes egitea lortu genuen. Elizaren hierarkiaren errepresioa eta isiltasun konplizea zela eta, maiatzaren 30ean bost apaizek Bilboko Gotzainde-

gian gose greba abiatzea erabaki zuten. Epaitu eta hamar eta hamabi urteko kartzela zigorra ezarri zieten. Haien artean Zamorako "konkordatu-espetxea" inauguratu zuten. Elizaren eta Estatuaren Presondegia. Eta, gerora, dozenaka euskal apaiz espetxeratu zituzten hantxe.

Juan Mari Arregi

jasanezina zen, horregatik, kondena-
nak eredugarri horiek.

X. Amuriza: Oso planteamendu uti-
litarioa zen gurea. Abade estatusare-
kin, urte batzuk bizi izan genituen
halako inpunitate batean, baina bage-
nekien hori amaituko zela. Nik garbi
nuen kartzelan amaituko nuela eta
huskeria batekin beharrean, ekintza
indartsu batekin nahiago.

Zamorako kartzelan

Arazo bat zegoen. Abadeek, Eliza-
ren araudien arabera, kondena-
komentuetan bete behar zituzten.
Alberto *Gabikaren* kasua izan zen
hori. 1964an atxilotu zuten homilia
“subertsibo bat” emateagatik eta
Palentziako Dueñaseko komentura
eraman zuten: hamalau mila fruta-
arbola, errekatsoa... “paradisu txiki
bat” dio berak. Kontua da jendea
erromesen modura joaten zitzaio-
la bisitan: “*Gabika* ezagutzen ez zuen
amaren semerik ez zen Euskal
Herrian” dio Amurizak.

Aparatu frankistak ez zuen hura
errepikatzerik nahi eta konkordatu
bidez kartzela berezia sortu zuten
Zamoran, preso arrunt eta politiko-
engandik bananduta. Egitura
horrek 1969tik 1976ra arte iraun
zuen eta bertatik hamarnaka elizgi-
zonen pasatu ziren, gehientsuenak
Euskal Herrikoak.

**Zuek kartzelaratzeko baimena Cirarda
gotzainak eman behar zuen. Zuengana
jo zuen oniritzia eskatuz, kontzientzia
arazoak izan zituela uste al duzue?**

A. Gabika: Kontzientzia arazorik
bat ere ez. Esan zigun: “Nik badakit
zuek pribilejiorik ez dozuela nahi
eta baimena emotea nahi dozuela”.
Guk erantzun genion pribilejiorik
ez genuela nahi, baina berak agertu
behar zuela historiaren aurrean bai-
mena sinatu zuena bezala.

X. Amuriza: Eta sinatu zuen.

**Pribilejiorik ez zenuten nahi. Baina zein
ziren kartzela hartako baldintzak?**

J. Kalzada: Guk eskatzen genuen
beste presoekin batera egoteko.

X. Amuriza: Baina pribilejiorik ez
izateko eskari hori euren komenen-
tziaara aplikatu zuten eta zigor doblea
izan zen: kartzela eta isolamendua.

Zergatik erabaki zenuten ihes egitea?



X. Amuriza: Zein izan zen argu-
mentu nagusia? Bestela barrura-
go ez gintuztela sartuko.

J. Naberan: Jon Etxabe eta biok
hasi ginen ihesaldia zelan egin pen-
tsatzen. Lehenengo horma gainetik
salto egin behar genuela eta gero
tunela egitea hobe zela...

Tunela egiteko urte eta erdi igaro
zuten eta zailtasunak hamaika izan
ziren: funtzionarioak entretenitu
beharra, hormaren zimendu azpitik
pasa, tunelari kurba eman, ateraz-
ten zuten lurra desagerrarazi, heze-
tasuna... Ihes egiteko kanpoko
laguntza ere izan zuten, *walkie-talkie*
baten bidez komunikatzen ziren
haiekin. Horrela jakin zuten garita-
ko argiak noiz pizten ziren, eta
horrela lotu zituzten garraioa eta
pisu-frankoak. Azkenean iritsi zen
eguna ihesbidea amaitu zutena.
Honela kontatzen du Amurizak:
“Ze alturan geunden ez genekien
eta badaezpada alanbre fin bat sar-
tzen genuen, astiro, sabaian. Hala-
ko batean ikusi nuen orratzaren
begia bezalako argitasun bat eta
Genesisean bezala egin nuen garra-
si: ‘Hemen jaut argie!’”.

Poztasunak gutxi iraun zien.
Den-dena prest zutela, ihes gaua
finkatuta, eta ilargi berria kontrola-
turik, “krudeltasun probidentzial
batek” erabaki zuten funtzionario
bat tunelaren ahoa ezkutatzeko zen
garbileku gelara joatea zuzen-zuzen-
ean. Ezin izan zuten ezer egin.

Argitu al da inoiz zer pasatu zen?

A. Gabika.: Josu, zuk bazenuen
teoria bat...

J. Naberan: Kartzelako beste de-
partamentuko leihotatik preso
komunek ikusten gintuzten eta
funtzionarioak jakinaren gainean
etorri zirenez, igual handik zerbait
esan zieten?

**Josu, Alberto eta Jon Etxabe egin
zineten ihesaren erantzule.**

A. Gabika: Etxabek kondena-
rik handiena zuen, eta gu biok, kasuali-
tatez, zuloa aurkitu zutenean han
suertatu ginen. Bestela, agian denok
jasoko genuen zigorra eta horrela
egitea pentsatu genuen.

X. Amuriza: Hauek segurtasun han-
diko kartzela batera eramane zituzten
eta besteok zigor bat jaso genuen.
Baina hain zeuden susto handiarekin,
beste zulo bat bilatzen aritu zirela,
hura zulo faltsua zelakoan.

A. Gabika: Ez zuten sinesten,
zuloa bukatuta eta ihes egin gabe...

**Urte mordoxka pasa zenuten kartzela-
n, gose greba eta protesta artean.
Zergatik erabaki duzue, justu orain,
hau guztia liburu batean kontatzea?**

X. Amuriza: Askotan esaten da
euskaldunok geuk egindakorik ez
dugula kontatzen. Kartzela enble-
matikoa izan zen, garrantzia izan
zuen, zergatik ez dugu kontatuko?

A. Gabika: Testigantza bat da, gero
ikusiko da jendearentzat interesan-
tea den edo ez. ■

www.argia.com/multimedia
helbidean, elkarrizketaren diaporama.